

XEDAPEN OROKORRAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

5470

233/2014 DEKRETUA, abenduaren 16koa, Euskadiko Gazte Txartela eratzeko eta arautzeko Dekretua hirugarren aldiz aldatzeko dena.

Gazteei erraztasunak eta aukerak ematea da Gazte Txartela zerbitzuaren helburua, era horretara, alor kultural eta sozialean izan ditzaketen beharrianak asetzeko aukera handiagoak izanda, euskal gazteen bizimodua hobea eta erosoagoa izan dadin.

Egitarau hau garatzerakoan izandako esperientzian oinarrituta eta euskal gazteriak egun lan-munduan, ekonomian, gizartean eta Europako krisi-egoeran bizi duen errealitatea aintzat izanik, aipatutako txartelak bere helburuak bete ditzan on litzateke orain indarrean dagoen balio-epari buruzko araudia moldatzea. Era horretara, euskal gazteriaren eskaera eta beharizanei erantzun egokiagoa emango diegu.

Ildo horretatik, on litzateke Gazte Txartelaren balio-epaia luzatzea eta egun indarrean dauden Gazte Txartelen iraugitze-data ere muga horretara arte luzatzea.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren proposamenez eta Jaurlearitzaren Kontseiluak 2014ko abenduaren 16an egindako bilkuran eztabaidatu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.– Euskadiko Gazte Txartela eratu eta arautzeko maiatzaren 2ko 260/1995 Dekretuaren 3. artikulua aldatzea. Aurrerantzean honako era honetan geratuko da idatzita:

«3. artikulua.– Gazte Txartelaren balioa gazteak 30 urte betetzen dituen hilabetean amaituko da.

Europako Gazte Txartelen Elkarteak ezarritako epeei egokitzearen edo beste era bateko arrazoiak direla-eta, txartela erabiltzeko epean aldaketarik izanez gero, Kultura arloan eskumena duen Saileko sailburuaren agindu baten bidez ezarriko dira epe berriak».

XEDAPEN IRAGANKORRA

Gaur egun indarrean dauden Gazte Txartelen balioa deketu honen artikulu bakarrak ezartzen duen mugara artekoa izango da.

AZKEN XEDAPENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintzaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondoriak.

Vitoria-Gasteizen, 2014ko abenduaren 16an.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.